

**PADCL2-D00051-1 plaza:**  
**epaimahaiaren ebaluaziorako irizpide zehatzak**

Irakasle laguntzaile doktorea hautatzeko baremazioari dagokionez, deialdian agertzen diren oinarriekin bat etorruta, 4 puntu uzten dira epaimahaiaren esku, hark egokien deritzon moduan esleitzeko. Hori horrela, honako hauek dira epaimahaiak adostu dituen irizpide zehatzak, atalez atal:

- Lan esperientzia eta bekak: 20 puntu
- Ikerketa merezimenduak: 20 puntu
- Irakaskuntza eta gestioko merezimenduak: 10 puntu
- Merezimendu akademikoak: 15 puntu
- Irakaskuntza programa: 12 puntu
- Ikerketa proiektua: 12 puntu
- Euskara: 11 puntu (baremo hau aldaezina da; EHUK ezarria)

Betiere EHUKo araudia kontuan hartuta, lehiakideren batek gainditzen badu atal bateko gehieneko puntuazioa, lehiakide horri emango zaio atal horretako puntuazio maximoa, eta gainerako lehiakideei haztatu egingo zaie ataleko puntuazioa. Halaber, atal batean bi hautagaik edo gehiagok lortzen badute atalari esleitutako puntuazio osoa, puntu gehien lortzen dituen lehiakidearen arabera haztatuko dira gainerako guztiak.

Adibidez, hautagai batek 40 puntu lortzen baditu lehen atala den “Lan esperientzia eta bekak” izenekoan, beste lehiakideen puntuazioa horren arabera haztatuko da, puntuazio horiek erdira ekarrita.

Azkenik, martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoa apirilaren 12an sartu zen indarrean, eta, horren ondorioz, lehentasunezko bi merezimendu ezarri behar izan ditu EHUK:

- Irakasle laguntzaile doktoreen edo irakasle atxikiak akreditazioa.  
Faktorea: baremazioan lortutako puntuazioa x 1,30
- Azken 7 urteetan gutxienez 5 ikasturtez Espainiako unibertsitateetan irakaskuntza-jarduerak egin izana.  
Faktorea: baremazioan lortutako puntuazioa x 1,15